

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DONEMILIAGAKO UDALA

674/2018-B prozedura arruntera ebatzea

Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 49.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, epatu egiten da Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako 1 zenbakiko Epaitegian bideratutako administrazioarekiko auzi errekurtsora -674/2018-B prozedura arrunta-. Errekurtso hori Mikel Insagurbe Davies eta Juan López de Guereñu Díaz de Aranguiz jaunek jarri zuten Donemiliagako Udalaren 2018ko urriaren 29ko ebazpenaren aurka, zeinak finkak birpartzelatzeko eta banatzeko lizentzia eskaera zuzentzeko demandatzaileak aurkeztutako idazkia onartu ez zuen ebazpenaren aurka jarritako berraztertze errekurtsoa ezetsi baitzuen. Prozedura horretan interesa duen oro ebatzen da, baldin eta beren interesei komeni bazaie, errekurtso horretan aurkeztu ahal daitezen, bederatzi eguneko epean iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, bai eta errekurtsoko alderdi gisa jardun daitezen ere.

Erdoña, 2019ko urtarrilaren 28a

Alkatea

DAVID LOPEZ DE ARBINA RUIZ DE EGUINO